



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Idazkaritza
Irteera : Z/18-02676
Data: 2018/05/24 -- 08:26:05

ESKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA ZOLA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA
Esp.kodea: 2018HLAP0002

2018 MAI. 29
MAY. 29

Gaia: EAEKO JARDUERA
EKONOMIKOETARAKO LURZORUA
SORTZEKO ETA MERKATARITZA-
EKIPAMENDUAK ANTOLATZEKO LAP-AREN
BERRIKUSPEN PARTZIALARI DAGOKION
ALDAKETA - Hasiera eguna: 2018/03/01

SARRERA	IRTEERA
Zk. 436251	Zk.

JAKINARAZPENA

Jakin dezazun, Tokiko Gobernu Batzarrak, 2018ko maiatzaren 17an egindako bilkuran, Alkatetzak emandako eskurantzzen eskuordetzearen arabera, besteak beste, akordio hau hartu zuen:

“Eusko Jaurlaritza: jende aurrean jartzea aldaketaren aurrerapen dokumentua, EAEko Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren berrikusketa partzialarena, merkataritza gune handiei dagokienez (2018HLAP0002)

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasun Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“2004ko abenduaren 21eko 262/2004 Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko honako Plana behin betiko onartu zen.

Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak Lurralde Arloko Plan (LAP) horren berrikuspen partzialari dagokion aldaketa sustatu du, merkataritza-gune handiei dagokienez. Horrela, erantzuna eman nahi zaio 2016ko martxoaren 22an Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak LAP horri berrikusteko prozesuari ekiteko onartutako akordioari.

Euskal Herriko Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 13.4 artikuluari dagokionez Lehenengo Xedapen Gehigarriak ezarritakoa betetze aldera, lurraldeetako administrazio publiko interesdunen entzunaldirako epea ireki da, egokitzat jotzen dituzten ohar, iradokizun, alternatiba eta proposamenak aurkez ditzaten.

Dokumentuak antolamenduko hiru irtenbide ditu behar den eztabaida sortzeko eta egokiagoa den hura aukeratzeko, beste irtenbide baten kalterik gabe:

1. IRTENBIDEA:

- Merkataritza-gune handien ezarpena arautzeko lurralde-izaerako proposamenik ez egitea planteatzen da hemen. Horrela, bakarrik bete beharko litzateke udal hirigintza-plangintzak udalerrri bakoitzerako xedatzen duena, eta ondorioz ez dago arand proposamenik egin beharrik.

- 1. irtenbideak hirigintza-plangintza hartzen du hartu beharreko erabakiak hartzeko oinarritzat. Horrek esan nahi du lurralde-antolamenduaren arloko erregulazioaren zehaztapena tokiko eskalara eramaten dela, eta horrek udalerrri bakoitzaren udal-mugearik harago doan ikuspegia galtzea dakarrela. Hala ere, Lurralde Planek hartu beharko lukete hori kontuan, udalaz gaindiko ikuspegia txertatuz.

2. IRTENBIDEA:



Esp.kodea: 2018HLAP0002

**Gaia: EAEKO JARDUERA
EKONOMIKOETARAKO LURZORUA
SORTZEKO ETA MERKATARITZA-
EKIPAMENDUAK ANTOLATZEKO LAP-AREN
BERRIKUSPEN PARTZIALARI DAGOKION
ALDAKETA - Hasiera eguna: 2018/03/01**

- EAEko merkataritza-gune handien ezarpena lurralde-araudi honen arabera arautzea proposatzen da:

- Merkataritza-gune handien erdiguneko bizitegitarako hiri-bilbeetako hirigintza-araudiak udal-plangintza bete behar du.
- Gainerako merkataritza-gune handien lurralde-erregulazioa dokumentuan jasotakoaren arabera.

- 2. irtenbideak lurralde-ikuspegiak zalantzarik ez duen erantzuna planteatzen du merkataritza jarduera batez ere bizitegi-erabilera hirigunetara bideratzen duen ereduaren alde, hiri zentraltasunarekin nahiz auzo-zentraltasunarekin, hiriaren antolamenduan sinergiak lortzeko, behar diren erabilera-nahasketa eta konplexutasuna bilatzeko eta mugikortasun ez motordunaren kuota handiagoak lortzeko helburuarekin. Lerro horretako jarduketan adibideak dira hirigunetara eta, bereziki, oinezkoentzako eremuetara bideratutako azalera txikiko nahiz azalera handiko merkataritza-jardueren ezarpenak.

- Irtenbideak kontuan hartzen du merkataritza-jarduera bizitegitarako hiri-bilbeetan antolamenduan txertatzeko premia. Eta lurralde-helburu horrekin, merkataritza-gune handien eta, bereziki, tamaina handienekoen ezarpenaren nahitaetzko erregulazioa planteatzen da, bilbe horietan ezartzera bideratuz eta, aldi berean, haien kanpoaldean kokatzea saihestuz eta motordun ibilgailuen mugikortasun handiagoa eta bide sareko elementu berrietan inbertsio berri garrantzitsuak sortuz.

- Formulaturako lurralde eta hirigintzako esku-hartzeetarako irizpide orokorrek herrigunetako hiri-bilbeetan merkataritza-gune handiak ezartzeko justifikatzen dute, hirigintza-plangintzak kasu bakoitzean zehazten diren baldintzetan, horrela markaturako jarraibideen arabera eta jasagarritasun-printzipioetan oinarrituta.

3. IRTENBIDEA:

- EAEko merkataritza-gune handien ezarpena lurralde-araudi honen arabera arautzea proposatzen da:

- Merkataritza-gune handien erdiguneko bizitegitarako hiri-bilbeetako hirigintza-araudiak udal-plangintza bete behar du.
- - Gainerako merkataritza-gune handien lurralde-erregulazioa dokumentuan jasotakoaren arabera.

3. jarduerak ere merkataritza-jarduera batez ere bizitegi-erabileraokak diren hirigunetara bideratzen duen ereduak proposatzen du lurralde-antolamenduaren ikuspegiak, hirizentraltasunarekin nahiz auzo zentraltasunarekin. Modu osagarrian, merkataritza-jarduerak baldintza jakin batzuetan ezartzeko aukera planteatzen du, ekonomia-jardueren eremuetan nahiz xede horrekin mugarirako lurralde-unitate berrietan. Azken aukera horren ereduak dira Durango eta Abadiñoako ezarpenak Bizkaian, edo Oiarzungoak Gipuzkoan.

- Irtenbideak kontuan hartzen du berri bar merkataritza-gune handiak bizitegitarako hiri-bilbeetan antolamenduan txertatzeko premia. Eta lurralde-helburu horrekin, merkataritza-gune handien eta, bereziki, tamaina handienekoen ezarpenaren nahitaetzko erregulazioa planteatzen da, bilbe horietan ezartzera bideratuz eta, aldi berean, haien kanpoaldean kokatzea saihestuz eta motordun ibilgailuen mugikortasun handiagoa eta bide-sareko elementu berrietan inbertsio berri garrantzitsuak sortuz.

- Merkataritza-gune handiak hirigintza-plangintzan antolatutako egungo hiri-bilbetik kanpo eta/edo bere periferian ezartzeko baimena ematea planteatzen da irtenbide honetan bertan zehaztutako baldintzen arabera; Arrasateren kasuan, hesteak heste, zentro komertzial berrien gehienezko eraikigarritasuna 15.000 m² izango litzateke.

Udalaren Zerbitzu Teknikoek dokumentua aztertuz egin duten txostena ikusirik eta jarrion azaltzen dena kontutan izanik:

1.- Egun indarrean dagoen Arrasateko Hiri antolamenduaren Plan Orokorrak (HAPO) finkatzen ditu eraikitako gehienezko sabai-azalera, bai saltoki handienak, bai merkataritza eta aisialdiko establezimendu txikiagoenak. Antolamendu esparruak poligonoetan biltzen ditu horretarako, eta ezarpenaren batura orokorrari dagokion gehienezko muga zehazten dio.



Esp.kodea: 2018HLAP0002

Gaia: EAEKO JARDUERA
EKONOMIKOETARAKO LURZORUA
SORTZEKO ETA MERKATARITZA-
EKIPAMENDUAK ANTOLATZEKO LAP-AREN
BERRIKUSPEN PARTZIALARI DAGOKION
ALDAKETA - **Hasiera eguna:** 2018/03/01

2.- Horretaz aparte, HAPO-k antolamendu esparru berezi batzuk ere zehazten ditu, funtzio zehatz batzuk bermatzen dituztenak: gaur egungo merkataritza plataformak, etxebizitzaren sostengurako hurbileko hirigune-merkatariak, eta garapen gordespena.

3.- Hori horrela, laburbilduta, hurrengo zehazten du HAPO-k:

1)) MERKATARITZA PLATAFORMAK	41.- MUGARRIETA 77.- EROSKI	Azalera handiko merkataritza Azalera handiko merkataritza	
2)) SOSTENGURAKO HIRIGUNEAK	30.- BEDOÑABE 70.- ZIGARROLA	Industria Arrunta Industria Arrunta	
3)) GARAPEN GORDESPENA	07.- KOBATE 38.- SAN JOSEPE HARROBIA 42.- ZAPATAERREKA	Industria Arrunta Industria Arrunta Trinkotasun Txikiko industria	
4)) EREMU BAKOITZERAKO GOI MUGA			
4.1) Ugaren Eskuinaldea	11.- EMAIDI 12.- MARKULETE	Industria Arrunta Industria Arrunta	13.000 m ²
4.2) Ugaren Ezkerraldea	10.- IBARRRETA 13.- GARAIA 14.- MENDIBARREN	Industria Handia Teknologia Parkeetakoa Industria Handia	12.000 m ²
4.3) Olandianoko Magalak	21.- OLANDIANO BERRI 22.- OLANDIANO	Teknologia Parkeetakoa Teknologia Parkeetakoa	3.000 m ²
4.4) Meatzerreka	24.- MEATZERREKA BERRI 25.- MEATZERREKA	Industria Arrunta Industria Arrunta	6.000 m ²
4.5) Hegoaldeko Deba	39.- FAGOR SAN ANDRES 40.- MUZIBAR	Industria Handia Industria Anitza	15.000 m ²
4.6) Erdialdea	65.- GEI MA 66.- GAMEI 67.- ZALDUSPE	Industria Handia Industria Handia Teknologia Parkeetakoa	14.000 m ²
4.7) Musakola Ezkerraldea	78.- ZABALETA 79.- GARRATZ 80.- PESA 81.- TXURISENA	Industria Anitza Industria Arrunta Industria Arrunta Industria Arrunta	16.000 m ²
4.8) Musakola Eskuinaldea	82.- KATAIDE	Industria Arrunta	10.000 m ²

4.- Kontuan izan behar da, gainera, HAPO-k zehaztutako dena 2016an onartua dagoela; hau da, indarrean dagoen araudi sektorialarekin bateragarria dela, edo gutxienez onargarria izan dela.

5.- Orain aurkeztu berri den dokumentuaren arabera, ordea, HAPO-k jasotakoa ez dator guztiz bat 2 eta 3 irtenbideekin, ez kokapenean, ez gehienezko eraikigarritasunean; eta ez du zentzurik berriro atzera egin beharrak.

Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasuneko batzordeak hauxe proposatu du:



Esp.kodea: 2018HLAP0002

Gaia: EAEKO JARDUERA
EKONOMIKOETARAKO LURZORUA
SORTZEKO ETA MERKATARITZA-
EKIPAMENDUAK ANTOLATZEKO LAP-AREN
BERRIKUSPEN PARTZIALARI DAGOKION
ALDAKETA - **Hasiera eguna:** 2018/03/01

.- EAEko Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzekeo Lurraldearen Arloko Planaren berrikusketa partzialari dagokion aldaketaren aurrerapen dokumentuaren inguruan irekitako entzunaldi izapidean adieraztea egokiena dela dokumentuan bertan jasotako 1. Irtenbidea, erabakiak tokiko eskalan har daitezzen, eta hirigintza-plangintzaren bitartez”.

Erabaki hau behin betikoa da, eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Edozelan ere, nahi izanez gero, haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu aurretik, BERRAZTERTZE ERREKURTSIOA aurkeztu dezakezu; horretarako, HILABETEKO epea duzu, jakinarazpena jaso eta buruen egunetik hasita. Bestela, haren aurka, zuzenean ADMINISTRAZIO-AREKIKO AUZI ERREKURTSIOA aurkeztu dezakezu Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, Donostian; horretarako, BI HILEKO epea duzu, jakinarazpena jaso eta buruen egunetik hasita.

Hori guztia egin dezakezu urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114 c), 123 eta 124 artikuluetan eta horiekin bat datozenetan xedatutakoaren arabera, eta uztaillaren 13ko 29/1998 Legeak, Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautzen duena, 8, 25, 46 artikuluetan eta horiekin bat datozenetan xedatutakoaren arabera.

Eta horretaz gainera, bidezkoztat jotzen baduzu, beste edozein egintza edo errekurtsio aurkeztu dezakezu.

Arrasate, 2018ko maiatzaren 22a

Idazkaria



EUSKO JAURLARITZA, INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA
SAILA
DONOSTIA-SAN SEBASTIAN KALEA, 1
01010 VITORIA-GASTEIZ



INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA

2018 MAI. 29

SARRERA	IRTEERA
Zk. 436251	Zk.